BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5400

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 16koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (274/2012-B prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (274/2012-B prozedura laburtua) Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendariaren 2010eko uztailaren 7ko Ebazpenaren kontra jarritakoa da. Ebazpen horren bitartez, EAEko Auzitegi Nagusiak 1530/2009 apelazio errekurtsoan emandako 335/2010 epaia betetzen da. Eta, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2012ko azaroaren 16a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.